

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Udal Kultur Etxea (Basauri)**

Akatsak zuzentzea abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuaren oinarri espezifikoetan.

Basauriko Udal Kultur Etxeko Lehendakariak, 2023ko maiatzaren 3an, Lehendakari-tzaren Ebazpena onartu du. Ebazpenak honako hau dio:

Lehenengoa: Lehendakari-tzaren 2022ko abenduaren 7ko Ebazpenetan atzemandako akatsa zuzentzea. Ebazpen horien bidez, Liburutegiko Laguntzaile lanpostu bat, Kultur Etxeko Arduradun Eragile lanpostu bat eta Irakasle Artista lanpostu bat (pintura) txanda irekiaren bidez betetzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten deialdiak eta oinarri espezifikoak onartu ziren.

Bigarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILE LANPOSTU BAT, KULTUR ETXEKO
ARDURADUN ERAGILE LANPOSTU BAT ETA IRAKASLE ARTISTA LANPOSTU BAT
(PINTURA) TXANDA IREKIZ BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUEN
OINARRI ESPEZIFIKOETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

— *Honela dio:*

«2.2. C1 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 23 euro».

— *Hau esan behar du:*

«2.2. C1 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 14 euro».

Basaurin, 2023ko maiatzaren 4an.—Basauriko Udal Kultur Etxeko Lehendakaria, María Larrinaga Artetxe